

Z LH6

2017-2018



Zuzenketa koaderno

Izen-abizenak:

Ikastetxea:


Ikastaldea/Ikasgela:

Herria:

Data:

**Zientzia
gaitasuna**

LHko 6. maila



Argibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzunen diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Esate baterako:

Zein da uraren kolorea?

- A. Zuria.
- B. Gardena.
- C. Urdina.
- D. Berdea.

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zein da uraren kolorea?

- A. Zuria.
- B. Gardena.
- C. Urdina.
- D. Berdea.

Beste galdera batzuetan esan beharko duzu zerbait egia (E) ala gezurra (G) den, edo puntuekin adierazitako tartean erantzuna osatzeko eskatuko dizute:

Esan ugaztunen 2 ezaugarri:

.....



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

NATURARA IRTEERA

Gaur, zuen irakasleak luze antolatzen aritu zareten kanpaldia egiteko eguna iritsi dela esan dizue. Oraingo honetan prestaketa guztiak zuek egin dituzue.



Irakasleek Nafarroan zehar eta bizikletaz joan behar zenutela esan zizueten. Hau entzunda, gelakide guztiak lanean hasi zineten.

1. Kirolak onurak ekartzen dizkio gure osasunari. Zer onura ekar dezake?

- A. Gure pisua kontrolatzea eta bihotza eta giharrak indartzea.
- B. Naturaz gozatzea.
- C. Neuronen arteko konexioa indartzea.
- D. Teknologi berriak gutxiago erabiltzea.

2. Zuen gelakide batek autoz joan nahi du, baina hobe da denok batera eta bizikletaz joatea. Idatz itzazu zuen gelakidea konbentzitzeko BI argudio.

1.-

2.-

Zuzenketa irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Denak gaizki.
1	Bi argudio hurrengoan artean: <ul style="list-style-type: none">- Osasunaren inguruan: <i>Giharrak indartu / Bihotza indartu / Neuronen konexioa sendotu.</i>- Ingurumenaren inguruan: <i>Aire kutsadurarik ez / Kutsadura akustikorik ez / Bizidunak ez ditugu molestatzen.</i>- <i>Elkarrekin denbora gehiago egoteko aukera / Bizikidetz lantzeko aukera ematen du.</i>- ...

3. Bi makina mota daude: sinpleak eta konplexuak. Hurrengo taulan, X bat ipini dagokion laukian:

MAKINA					
SINPLEAK	X		X	X	
KONPLEXUAK		X			X

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 – 3 erantzun zuzen.
1	4 – 5 erantzun zuzen.





4. Ondoren agertzen diren sistemen artean, zeinetan ematen ditu bizikletaren platerak bira bat eta piñoiak bi bira?

A.

B.

C.

D.



5. Irakasleek aholku bat eman dizuete: euria eginez gero, bizikletak lehortu behar dituzuela. Zergatik?

- A. Erretzen direlako.
- B. Hartzidura (fermentazio) erreakzioa gerta daitekeelako.
- C. Herdoiltzen, oxidatzen, direlako.
- D. Hurrengo egunean gaizki balaztatuko (frenatuko) duelako.

6. Atzo gauean bizikletak lehor-lehorrak utzi zenituzten. Baina goizean bustirik zeuden, euririk egin ez duen arren. Fenomeno horri “ihintza” deritzogu. Azaldu zer den “ihintza” eta zergatik gertatzen den:

.....

.....

Zuzenketa irizpideak	
Puntuazioa	Erantzunak
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Ihintza definitu du eta zergatik gertatzen den argudiatu du: Adibidez : <i>Gauez, airea hoztean, ur-lurruna/ ura kondentsatu egiten da.</i>


7. Taldeko bizikleten koadroak aluminioz eginda daude. Aukeratu, X bat jarrita, aluminioaren lau ezaugarri.




Metalezkoa.



Zurruna.



Plastikozkoa.




Elastikoa.



Arina.



Dentsitate gutxikoa.




Gardena.



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 – 1 erantzun zuzen.
1	2 – 3 erantzun zuzen.
2	4 erantzun zuzen.

8. Bizikletaren atal desberdinek funtzio bat dute eta mekanismo batekin lotzen dira. Jarri X bat taularen errenkada bakoitzean, bizikleta atal bakoitzari zer mekanismo dagokion adierazteko.



		MEKANISMO MOTA		
		Direkzio Mekanismoa	Balaztatze Mekanismoa	Transmisio Mekanismoa
BIZIKLETA ATALA	Eskulekua	X		
	Pedala			X
	Katea			X
	Balazta		X	
	Platera			X

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 – 2 erantzun zuzen.
1	3 – 4 erantzun zuzen.
2	5 erantzun zuzen.

9. Euria ari du. Tximistak eta trumoiak ere badira. Mikel beldurtuta dago. Hala ere, zuk esan diozu ezin zaiola ezer ere gertatu bizikletaren gainean dagoenean, bizikletaren atal asko direlako.

- A. eroaleak edo eramaileak
- B. **isolatzaileak**
- C. erradiaktiboak
- D. magnetizagarriak

KANPINEAN ZAUDETE


Kanpinera iritsi zarete. Jon eta Josu kanpina denda muntatzeaz arduratuko dira. Ane eta Unai, aldiz, kanpin denda barruan argia ipintzeaz.




10. Anek eta Josuk bi bonbillarekin zirkuitu elektrikoa muntatu nahi dute. Zer osagai erabiliko dute?

- A. 2 bonbilla, pila 1, torloju 1 eta etengailu 1.
- B. 2 bonbilla, pila 1 eta kable 1.
- C. 2 bonbilla, bateria 1, kable 1 eta etengailu 1.
- D. 2 bonbilla, kable 1, kableari eusteko brida 1 eta etengailu 1.

11. Zirkuitu elektrikoa muntatzeko orduan, bonbilla bat errez gero, argia izaten jarraitu nahi duzue. Zirkuituaren eskema egiteko ondorengo ikurrak erabiliko dituzte.



Zein eskema elektriko da zuzena?



12. Bonbilla bat erretzen bada eta gainerakoek funtzionatzen jarraitzen badute, zirkuitu horrek zer izen hartuko du?

- A. Zirkuitu paraleloa.
- B. Serieko zirkuitua.
- C. Zirkuitu eroalea.
- D. Korronte zirkuitua.

13. Kanpineko sarreran meteorologia estazio txiki bat dago. Plubiometroa, termometroa, anemometroa eta haize-orratza ditu. Plubiometroak zer neurtzen du?

- A. Haizearen indarra.
- B. Tenperatura.
- C. Haizearen norabidea.
- D. **Euri kantitatea.**



14. Plubiometroak ematen dizkigun kantitateak zein unitatetan agertzen dira?

- A. Kelvinetan.
- B. Gramotan.
- C. **Litrotan.**
- D. Metrotan.

15. Anek Josuri zirkuitu elektrikora ez hurbiltzeko esan dio. Zein izan daiteke arrazoia?

- A. **Josu bustita dagoela eta arriskutsua dela.**
- B. Josu bustita dagoela eta bonbila hautsi dezakeela.
- C. Zapatilak daramatzala eta hori arriskutsua dela.
- D. Etengailua itzalita dagoela.

16. Halako batean, kanpina energia elektrikorik gabe geratu da, matxura izan baita. Zein hiru iturri erabiliko zenituzke energia lortzeko?

- 1.-
- 2.-
- 3.-

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 – 1 erantzun zuzen.
1	2 erantzun zuzen.
2	3 erantzun zuzen. Adibidez: <i>eguzkia/ eguzki energia, haizea/ eolikoa, ura/ hidroelektrikoa, bateria/ pilak/ generadorea etabar.</i>

17. Energiei buruz hainbeste hitz egin ondoren, energia iturri berriztagarriak eta berriztaezinak bereizten jakinen duzu. Jarri X bat energia iturri berriztagarrien eta energia iturri berriztaezinen ezaugarrietan.

		ENERGIA ITURRIAK	
		Berriztagarriak	Berriztaezinak
EZAUGARRIAK	Naturala da	X	
	Artifiziala da		X
	Agortzen da		X
	Agortezina da	X	
	Azkar berritzen da	X	
	Poliki berritzen da		X
	Ingurumena kutsatzen du		X
	Ingurumena ez dute kutsatzen	X	

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 – 4 erantzun zuzen.
1	5 – 6 erantzun zuzen.
2	7 – 8 erantzun zuzen.

18. Nafarroako mendi alde askotan haize errota ikus ditzakezue. Energia alternatiboak lortzeko erabiltzen dira. Zein energia mota lortzen da haize errotekin?

- A. Hidraulikoa.
- B. Bero energia.
- C. Biomasarekin sorturikoa.
- D. Eolikoa.

19. Nafarroan haize errota ugari dago, eta energia modu alternatiboan lortzeko erabiltzen dira. Hala ere, zenbait talde ekologista haize errota hauen kontra daude.

Aukeratu arrazoa.

- A. Geldirik daudenean, mugimenduan daudenean baino energia gehiago sortzen dutelako.
- B. Hegaztien migrazioa eteten dutelako.
- C. Pertsonak ez dituztelako aprobetxatzen.
- D. Erraz hondatzen direlako eta konpontzea oso garestia delako.

IBILALDIA

Hurrengo goizean esnatu zarete eta egun osoko ibilaldia prestatu duzue. Inguruko mendi batera igo zarete animaliak eta landareak ezagutzeko. Horretarako, argazkiak atera dituzue. Hona hemen mendi gailurretik atera duzuen argazkia.



20. Nafarroako zein eskualde ote da?


- A. Erribera.
- B. Hegoaldea.
- C. Iruñerria.
- D. **Iparaldea.**

21. Nafarroako mendi aldera etorri zarete. Hurrengo ezaugarrietatik, eskualde honi dagozkion bi aukeratu:

- Epela da.
- Ez du ia euririk egiten.
- Euritsua da.
- Zuhaitz gutxi daude.
- Ekosistema bat da.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 – 1 erantzun zuzen.
1	2 erantzun zuzen.

22. Ibilbidean zehar Peruk honako animalia hauei atera dizkie argazkiak.






Sailkatu goian izendatuta dauden zazpi animaliak 1etik 7ra zenbaki bat jarritz:

	Zenbakia	
Okila	5	(1) Intsektua.
Kamaleoia	3	(2) Ugaztuna.
Igela	7	(3) Narrastia.
Igaraba	2	(4) Krustazeoa.
Karramarroa	4	(5) Hegaztia.
Amuarraina	6	(6) Arraina.
Sorgin-orratza	1	(7) Anfibia.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 – 4 erantzun zuzen.
1	5 – 6 erantzun zuzen.
2	7 erantzun zuzen.

23. Argazkiak ikusita, ekosistemaren elika-katea azaldu dizue irakasleak. Idatzi 1etik 3ra argazki bakoitzari dagokion zenbakia.

		Zenbakia	
		3	(1) Ekoizlea.
		1	(2) Kontsumitzailea.
		2	(3) Deskonposatzailea.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 – 2 erantzun zuzen.
1	3 erantzun zuzen.

24. Unak ere argazkiak atera dizkio animalia honi. Badakizu zer sailetakoa den?

- A. Birusa.
- B. Bakterioa.
- C. Organismo zelulaniztuna.
- D. Onddoa.



25. Irakasleak esan dizue animaliak bost erreinu desberdinetan sailkatzen direla. Lotu ezazu erreinu bakoitza bere ezaugarriarekin (1etik 5era).

Erreinoa	Zenbakia
Onddoak	5
Protistoak	3
Moneroak	2
Landareak	1
Animaliak	4

(1) Guztiak autotrofoak dira, hau da, beren janaria sortzen dute.

(2) Denak izaki zelulabakarrak dira.

(3) Algak eta amebak erreinu honetakoak dira.

(4) Gehienak sexu bidez ugaltzen dira.

(5) Beste izaki bizidun batzuen hondakinak jaten dituzte.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 – 2 erantzun zuzen.
1	3 – 4 erantzun zuzen.
2	5 erantzun zuzen.

26. Ibilbidean zehar honako material hauek ere aurkitu dituzue:

<p>1</p> <p>Egunkari papera</p> 	<p>2</p> <p>Esne kutzak</p> 	<p>3</p> <p>Laranja azalak</p> 	<p>4</p> <p>Ogitarteko zatiak</p> 
--	--	--	--

<p>5</p> <p>Beirazko botila</p> 	<p>6</p> <p>Aluminio papera</p> 	<p>7</p> <p>Kartoi kutxa</p> 	<p>8</p> <p>Edalontzi apurtua</p> 
--	--	--	--

Jarri 1etik 8ra bitarteko zenbakiak zakarrontzi bakoitzean sailkatu behar diren objektuen zenbakiak.

				
Zenbakiak	2, 6	3, 4	5, 8	1, 7

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 – 4 erantzun zuzen.
1	5 – 6 erantzun zuzen.
2	7 – 8 erantzun zuzen.

27. Zein bi aholku emango zenizkioke zure lagun bati ingurumena zaintzeko?

- 1.-
- 2.-

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 – 1 erantzun zuzen.
1	2 erantzun zuzen hurrengo kontzeptuekin erlazionatzen direnak: <ul style="list-style-type: none"> • Birziklatu • Murriztu • Berrerabili • Izaki bizidunak zaindu

28. Hondakinak behar bezala sailkatu ondoren, kanpineko erreka ura oso zikina dagoela konturatu zarete. Nahasketa heterogeneoko gaiak bereizteko zein metodo erabiliko duzue garbitzeko?

- A. Lurrunketa.
- B. Destilazioa.
- C. **Iragazketa.**
- D. Dekantazioa.

JOSU GAIXORIK DAGO

Kanpaldiko bigarren eguna da. Josu gaixorik esnatu da eta irakasleek sendagilearengana eraman dute.



29. Josuk arazoak ditu digestio aparatuan. Aparatua elementu ezberdinek osatzen dute.

Zein da elementu hauen antolaketa zuzena (egitura sinpleenetik konplexuenera)?

- A. Zelulak, ehunak, aparatuak eta organoak.
- B. Organoak, zelulak, aparatuak eta ehunak.
- C. **Zelulak, ehunak, organoak eta aparatuak.**
- D. Aparatuak, organoak, ehunak eta zelulak.

30. Josuk digestio aparatuan duen gaixotasuna kutsakorra da. Beraz, zein prebentzio neurri hartu beharko lirateke?

- A. **Eskuak maiz garbitu.**
- B. Pixagurari denbora luzez ez eutsi.
- C. Elikagaien iraungitze data begiratu..
- D. Josurengana hurbiltzen bazarete, aurpegia estaltzen duen maskara eta eskularruak erabili.

31. Elikagaiek digestio aparatuen organo ezberdinak zeharkatzen dituzte. Idatzi organo horietako lau-ren izenak.

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 – 2 erantzun zuzen.
1	3 erantzun zuzen.
2	4 erantzun zuzen: <i>ahoa, hestegorria, urdaila, heste meharra, heste lodia, uzkia.</i>

- 32.** 12 urteko pertsona baten dieta orekatua izateko, honek eguneko 2450 kaloria kontsumitu behar ditu. Josuri dieta berezia jarri diote hobetu arte. Hona hemen bere eguerdiko menua.

1. platera	2. platera	Postrea
Arroza txuria (200 g)	Oilaskoa plantxan (200 g)	Banana (200 g)
		

Ondorengo taula kontuan hartuz, zenbat kaloria kontsumituko ditu Josuk gaur bazkaltzerakoan?

- A. 2450 kaloria.
- B. 2500 kaloria.
- C. 1098 kaloria.
- D. 549 kaloria.

PRODUKTUA	KALORIAK 100 g-ko
Banana	85
Oilaskoa	110
Arroza txuria	354

- 33.** Ur asko ere edateko esan diote. Zergatik gomendatu diote hori?

- A. Egarrri ez izateko.
- B. Galdutako ura konpentsatzeko.
- C. Galdutako pisua berreskuratzeko.
- D. Oso elikagai osasuntsua delako.

- 34.** Elikaduraren piramidea ikusita, sendagileak zer dieta aholkatu dio?

- A. Karbohidratoetan aberatsa.
- B. Proteinak eta karbohidratoetan aberatsa.
- C. Mineraletan oso aberatsa.
- D. Gantzetan aberatsa.



- 35.** Bazkaltzen ari zela, Josuk zauri bat egin du eta odola dario. Nola geldituko da odol jarioa?

- A. Plaketek geldiaraziko dute.
- B. Globulu gorriek geldiaraziko dute.
- C. Globulu txuriek geldiaraziko dute.
- D. Neuronek geldiaraziko dute.

KANPALDIKO AZKEN EGUNA

Azken eguna duzue eta gaur kanpinean ping-pongean jolasten aritu zarete. Baina jolastokia erreka ondoan zegoen eta pilota uretara erori zaizue. Pilotaren bila joan zaretenean, urak zeramala ikusi duzue. Harrituta, eta pilota harrapatu nahian, ziztu bizian atzetik joan zarete.



36. Badakigu gorputza eta objektuak materiaz osatuta daudela, baina zein dira materiaren propietate orokorrak?

- A. Masa eta bolumena.
- B. Masa eta dentsitatea.
- C. Bolumena eta flotagarritasuna.
- D. Dentsitatea eta bolumena.

37. Ping-pong pilota ez da hondoratu. Azaldu zergatik.

.....
.....

Zuzenketa irizpideak	
Puntuazioa	erantzunak
0	Emandako erantzuna okerra da.
1	Hurrengo erantzunen arteko bat: - Uraren bultzadaren indarra ping-pong pilotaren pisua baino handiagoa delako. - Uraren dentsitatea ping-pong pilotaren dentsitatea baino handiagoa delako. - Ping-pong pilotaren dentsitatea 1 kg/ 1l baino txikiagoa delako.